

80. FITXA. ARABA – Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko programak edo jarduerak garatzeko dirulaguntza

Nori zuzenduta: Arabako Lurralde Historikoko udalak eta kuadrillak eta Trebiñuko enklabeak, Vitoria-Gasteizko Udala eta hura partaide den kuadrilla izan ezik.

Sartzeko esteka: [Arabako Foru Aldundiaren Egoitza elektronikoa - egoitza](#)

Erreferentziazko arauak: [Foru Gobernu Kontseiluaren 752/2024 Erabakia, abenduaren 17koa. Onespena ematea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko Arabako eta Trebiñuko enklabeak udalek eta kuadrillek sustatutako programak edo jarduerak garatzeko 2025eko ekitaldiko dirulaguntza deialdiari](#)

Eremuak: Berdintasuna

Zenbatekoa: 200.000 €

Aurkezteko epea: 2025/02/21

Laburpena

Deialdiaren xedea da dirulaguntzak ematea, norgehiagoka bidez, eta dirulaguntza horien helburua da laguntza ematea elkarte sarea indartzeko eta irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeek Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean **emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduerak** egin ditzaten 2025eko ekitaldian. Gasteizko udalerrian egindakoak kanpoan geratzen dira. Deialdi honen barruan finantzatzeko diren jarduerak ikuspegi feminista dutela egiaztatu beharko da.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Diruz lagundu ahal izango dira jardun ardatz hauetan sartzen diren helburuak dituzten proiektuak:

- **Indarkeria matxisten aurrean jarduteko eta koordinatzeko protokoloak eta berdintasun planak** egitea eta ebaluatzea.
- **Lidergo feministen presentzia sustatzea** ordezkari lanpostuetan eta erantzukizun politiko publikoko lanpostuetan.
- **Pobreziaren feminizazioaren** eta haren bilakaeraren arrazoiei eta konponbideei buruzko ezagutza handitzea, krisi egoeretan areagotzen dela kontuan hartuta.

- **Arabako emakumeen elkarte mugimenduak** emakumeen eskubideak eta herritartasuna defendatzen, eraikitzen eta finkatzen eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzen egiten duen lana indartzea eta sendotzea.
- Erakunde sozial, sindikal, enpresarial, kultural eta politikoetan **berdintasuna lortzeko konpromisoa duten emakumeen kopurua handitzea**.
- **Sareko lan feminista** eta sare feministen eraikuntza bultzatzea Araban.
- Bizitzaren etapa guztietan **sexualitatea libre, positibo eta osasungarria** izan dadin sustatzea.
- **Desgaitasuna duten emakumeen eskubideak** sustatzea eta babestea, eta haien errealitateak ikusgarriago egitea, ikuspegi ez-kapazitista batetik.
- **Emakume migratuen, arrazializatuen, ijito komunitatearen eta/edo beste komunitate eta talde etniko batzuetako kideen eskubideak sustatzea eta babestea**, eta haien errealitateak ikusgarriago egitea, arrazakeriaren kontrako ikuspegitik.
- **Emakumeen aurkako indarkeria matxistatik bizirik atera diren biktimen** ahotsa kontuan hartzeko eta politika publikoetan eragiteko espazioak eta mekanismoak eraikitzea.
- Ekimenak garatzea **LGTBI+ kolektibo**en aurkako diskriminazioak ezabatzeko eta sexu eta genero aniztasuna sustatzeko.
- Gizartea kontzientziatzea **adinkeriak** emakumeengan dituen eraginei buruz (estereotipoak, aurreiritziak eta adinari lotutako diskriminazioa).
- Honako emakume hauen eskubideak sustatzea eta babestea: **presoak eta preso ohiak, sexu langileak, salerosketaren biktimak, etxegabeak, seropositiboak, adikzioak dituztenak, kalteberatasunik handiena dutenak eta gizarte bazterketa larriko egoeran daudenak, gurasobakarrak, edo beste edozein izaera edo egoera pertsonal, sozial edo administratibotan daudenak**.
- **Gizonekin esku hartzeko guneak eta programak** garatzea, botereari, indarkeriari eta pribilegio maskulinoei buruzko hausnarketan eta kontzientziazioan arreta jartzeko, bai eta horiek emakumeengan, gizonengan eta, oro har, gizartean eragiten dituzten kostuetan ere.
- **Gizonen benetako konpromisoa, inplikazioa eta eragina** sustatzea benetako berdintasuna eraikitzeko eta indarkeria matxista ezabatzeko, bereziki gazteena eta lidergo postuetan daudenena, aldaketa eragile bihur daitezen, eredu izan daitezen eta sinergiak sor ditzaten, parte hartzen duten gune guztietatik.
- **Belaunaldi gazteak sentsibilizatzea**, berdintasunaren arloan egindako lorpenak balioets ditzaten, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak identifikatzen ikas dezaten eta desberdinkeria horiek desagerrarazteko mobilizatu daitezen.
- Herritarrei laguntzea **berdintasunaren balioa** ezagutu eta barnera dezaten, genero aginduak zalantzan jartzen ikas dezaten, eta emakumeen aurkako diskriminazioa justifikatzen eta hutsaltzen duten baieztapenak argudioen bidez desegin ditzaten.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren mota guztien kausetan, ezaugarrietan, identifikatzeko zailtasunetan eta ondorioetan sakonduko duten **azterlanak** egin daitezen sustatzea, eta azterlan horien ondorioen aplikazio praktikoan arreta jartzea.
- Hain agerikoak ez diren emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpenei eta ondorioei buruzko **sentsibilizazioa** areagotzea (sexu indarkeria, indarkeria bikarioa, indarkeria ekonomikoa, sexu jazarpena eta sexuagatiko jazarpena, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa eta beste batzuk).
- Bizirik atera diren emakumeen suspertze eta ahalduntze prozesuetan **lan komunitarioa**

indartzea, bereziki berdintasunaren alde lan egiten duten emakume elkarteekin, talde feministekin, ahalduntze eskolekin eta emakumeen etxeekin.

Jendearentzat oro har diren diruz lagundutako jarduerak **LAIA berdintasunerako eta emakumeen ahalduntzerako Arabako lurralde sarearen** programazioaren parte izango dira. Horretarako, deialdia ebatzi ondoren, diruz lagundutako proiektuei buruzko informazioa eskatuko zaie horien erakunde titularrei.

Erakunde eskatzaile bakoitzak **proiektu bakarra** aurkeztu ahalko du.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira **2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 1era** arte egiten direnak.

Laguntzen zenbatekoa

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak diruz lagundu daitezkeen aurrekontu osoaren **ehuneko 90** finantzatuko du gehienez, eta erakunde eskatzaileari dagokio ziurtatzea gainerako ehuneko 10a baduela.

Gehieneko zenbatekoak erakundearen biztanle kopuruarekiko proportzionalak izango dira, tarte hauei jarraituz:

- 500 biztanletik beherako erakundeak: **3.000 euro.**
- 501-1.000 biztanleko erakundeak: **5.000 euro.**
- 1.001-3.000 biztanleko erakundeak: **6.000 euro.**
- 3.001 biztanletik gorako erakundeak: **8.000 euro.**

Kuadrilletarako, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa **10.000 euro** izango da.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, deialdi honetan ezarritakoaren arabera berraztertuta, erakundeko **800 euroko** dirulaguntzara heltzen ez diren eskaerak.